

Topic: txotxongiloaren artearentzat zentro integrala

San Sebastián Belza, Marta

1. Aurkezpena

1.1. Helburuak

Bokazio integraleko gune gisa, Topic zentroak ere mundu osoko titiriteroentzat topaketa gune bihurtzeko helburuarekin sortu da. Esperientziak, gogoetak eta lanak ikasi, erakutsi, ikertu, produzitu eta elkar banatzeko leku bat da, abangoardiako espazio eroso, funtzional eta maila altuko ekipamenduarekin, 2009 urteko azaroaren 27an Tolosan inauguratu zen eraikina.

Tradiziotik abangoardiarainoko bere ikusmolde guztietan, txotxongilo artearen garapena, sustapena eta perfektionamendu helburuak elkar banatzen dituzten guztientzako espazio erabilgarri bat izan nahi du beraz, eta beste arteekin izan dezakeen elkar harremanetara beti zabalik agertu da.

UNIMA, Txotxongiloaren Nazioarteko Elkarteko kide aktibo gisa, bere nazio-ko eta nazioarteko batzorde eta estamentu desberdinekin lan egiteko prest agertu da Topiceko zuzendaritza.

Haur ikuslegoa Topic zentroaren hartzaille nagusia da. Modu honetan, zentro berriak antzerkia eta haurra erlazionatzen dituen guztian sakontzea du helburu gisa. Gazteenak modu natural baina zuzendu batean antzerki mota honetara hurbiltzea lortu nahi da. Baina bokazio integratzailea duenez, Topic mundu osoko titiriteroen topaleku ere bihurtu nahi du. Informazioa, gogoetak, ikuskizunak eta esperientziak partekatu, ikasi, aztertu eta sortzeko espazioa izan nahi du.

Tolosak horrela txotxongilo antzerkiaren epizentro batean bihurtu nahi du. Geroz eta begirune eta giza sakonera handiagoa duen adierazpen artistikoa mantendu eta bultzatu nahi du Topic zentroak. Hala, Topic eremu irekia izango da, profesionalak eta zaletu, haur, gazte eta helduentzat, finean, txotxongiloen artea maitate duten guztientzat.

Europa osoan txotxongilo artearentzako zentro integral bakarra da. Bizkaian badago dokumentazio zentro txiki bat eta Valentziako Herraldean museo txiki bat

ere, baina Topic egitasmoaren antzeko ezaugarriak dituen zentro integral bat aurkitzeko Estatu Batuetako Atlantaraino eta Taiwanen, Taipeiraino joan behar da.

1.2. Eraikinaren ezaugarri nagusiak

- Orotara 3.600 m² ditu eraikinak.
- Museo iraunkor bat eta aldi baterako erakusketak eskaintzen ditu zentroak.
- Erabat digitalizatutako dokumentazio, artxibo eta mediateka bat ditu.
- 250 ikuslerentzako edukierako ondo hornitutako espazio eszeniko moder-noa du.
- Produkzio, muntaia eta entsegutarako gela du profesionalentzat.
- Ekintza eszenikoetarako espazio bateragarriak eskaintzen ditu.
- Bideo-hitzaldi bidezko *on-line* zein presentziatzko tailer eta ikastaroak antolatzeko bitartekoak eskaintzen ditu.
- Artista edo/eta ikerlarientzako egoitza txiki bat du zentroak.

1.3. Tolosako Ekinbide Etxea

Topic zentroaren sorrera ezin uler daiteke Tolosako Ekinbide Etxea zer den jakin gabe. 1967ko maiatzaren 23an Tolosako Ekinbide Etxea (T.E.E.) diru asmorik gabeko kultur elkarte bezala osatu zen, gure herriko kultura eta ezagutza sustatu eta bultzatzeko asmoz. 1994an herri-onurako Elkarte izendatua izan zen.

Bere historia zabalean zehar, bere ekintzetan bere egitarauak aurrera atera ahal izateko edozein motatako lanak borondatez egin dituzten milaka tolosar sar-tzeko gai izan da: lan errazenetatik zailenetaraino edo ardura gehien duteneraino. Bere izaera altruistak eta bere lanaren zorrotasunak sari desberdinak jasotzea ahalbidetu du, horien artean 1970ean Turismo Ekinbide Etxeei emandako Estatuko Lehen Saria eta 1989an Turismoko Euskadi Saria.

Bere sorreratik, Tolosako Ekinbide Etxeak herriko kultur bizitzan paper nagusi bat jokatu du. Bere lehenengo urtetatik, Tolosan ospatu ziren kultur eta jai ekintza gehienak aurrera ateratzen saiatu zen elkarte hau. Duela urte batzuetatik nazioarteko proiektio handiena duten ekintzetan edo gure Herrialdeko kultur panoramari hodeiertz berri bat ematen dioten ekintzetan bildu da bere antolaketa ahalegina.

Tolosako Udalarekin elkarlanean eta bere fundazioaren 25.urteurrena zela eta 1992 urtean, Tolosako Ekinbide Etxeak Tolosako herriari egin zion opari gisa, aire libreko eskultura erakusketa-museo iraunkorra martxan jarri zuen. Gaur egun hiriko ondare hau osatzen dute Jorge Oteizaren (Triangulo Plaza), Ricardo Ugarteren (Arxibo Probintziala), Nestor Basterretxearen (Emeterio Arrese), Antaren (Arramele Zubia) eta Tomas Hernandez Mendizabalen (Zezen Plaza) eskulturek.

Besteak beste, nazioartean erreferentzia bilakatu diren Abesbatza Lehiaketa eta Titirijai Txotxongilo Jaialdia antolatzen ditu Tolosako Ekinbide Etxeak, lehena aurten 42. ediziora iritsiko dena eta bigarrena 28. ediziora. 1982. urtean sortu zen hala txotxongiloentzat zentro integral bar sortzeko beharra eta proiektuaren garapena.

1.4. Historia apur bat

Egitasmo guztiek bere historia dute eta Topic zentroarena ez da txikia, duela 20 urtekoa baita.

1982. urtea zen eta Tolosako Ekinbide Etxeak kultur ekintza berri bati hasiera ematea eta Titirijai, txotxongiloen nazioarteko jaialdi baten sorkuntza bultzatzea erabaki zuen. Hasiera batean batzuei ideia bitxia iruditu zitzaiena, edo besteei ausarta, gorpuzten joan zen eta ideia arrakastatsu batean bihurtu zen.

Ondoren, Topic egitasmoa 1985an abiatu zen, Titirijai, Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiak bakarrik hiru edo lau edizio ospatu zituenean. "Txotxongilo" ezaguna gure herrialdeko kultur arloan apaltasunez sortzen hasi zen baina, aldi berean, hogeitaz beranduago txotxongilo antzerkiak hitz egiten denean nazioarteko erreferente bihurtzea eraman duen energia batekin.

Gaur egun Titirijai 25.000 ikusle baino gehiagoren arreta erakartzeko gai da, 160 antzeppen ditu bataz beste eta Tolosa txotxongilo antzerkiaren arloan nazioarteko erreferente batean bihurtu du.

Titirijai jaialdiak hartzen joan zen giza sakonera ikusirik, bere bultzatzaileak, Tolosako Ekinbide Etxea, egitasmo berri bat irudikatzen hasi zen: Zergatik ez baliaitu egiten dakigunaz eta ikasitako ezagupenez egitasmo bakar bat bultzatzeko?

Topic, beraz, ez da ezerezetik jaiotzen. (Aurten bere 28. edizioa ospatzen duen Titirijai jaialdiaren ondorio logiko bat da). Konpainien, antzeppen kopuruaren eta agertzen den ikuslegoaren ikuspegitik neurri guztiak agerian jartzen dituen eta gaur errealitate sendo bat den jaialdi bat.



Kuruma Ningyo. Japoniar taldeak 2010ko Titirijai jaialdian parte hartu zuen

Edizio hauetan zehar, Jaialdiak 40 herrialdetako 421 konpainia, 386.000 ikuslek ikusi dituzten 2.015 antzeppen eskaini dituzten 487 ikuskizun hartu ditu. Badago, beraz, Topic zentroko merkaturatzean eta sendotzean balio handikoa izango den arlo honen inguruan kultura bat, ezagutza bat eta jakintza bat.

Egitasmoaren etapak:

1987. Lehenengo egitasmoa aurkeztu zen eta kokapen posibleak kontuan hartzen hasi ziren. Horien artean, Aranburu Jauregia, Arkauteko txaleta, Ertzaintzaren egoitza zaharra edo Tolosako Kasinoa zeuden.

1999. Tolosako Udalak Euskal Herriko plazako Justizia Jauregirako aurre-proiektu bat enkargatu zuen.

2005-2006. Lehiaketa publikoan proiektua Anton Pagola arkitektoari eman zitzaion.

2007-2009. Lanen burutzea eta zentroaren inaugurazioa.

1.5. Kokapena: Tolosako Euskal Herria plaza

Topic zentroa Justizia Epaitegi zaharrean kokatzen da, Tolosako Euskal Herria plazan, kultur ondaretzat hartzen dena. Etxe berriaren eraikuntza posible izan da Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Tolosako Udala, eta Kultura eta Sustapen Ministerioak eta Kutxaren diru laguntzekin. Gainera, esan beharra dago Tolosako Udalak eraikinaren kudeaketa Tolosako Ekinbide Etxeari utzi diola hogei urtez.

Gaur egun Topic kokatzen den eraikinak historia luzea du bizkarrean. Alderdi judizialeko lehen instantziako epaitegia eratu zenean eta 1844 urtean Tolosako Gipuzkoako hiriburu izendatu zela, behar berriei erantzuteko gai izango zen eraikin bat behar zen herrian. Behin betiko proiektua, 1851 urtean aurkeztu zena, Vicente de Unanue eta Jose Eleuterio de Escoriazak egin zuten. Obrek bi urte iraun zuten eta probintziako Aldundiak eta alderdi judizialeko herriek. Garai hartan eraikinak Rondillako sailetatik kokapen isolatua eta deigarria hartu zuen, izan ere ondoan zituen lursailetatik batean ere ez zen eraiki lehena bukatu zen arte.

Epaitegiez gain, bere garaian espetxea ere bertan kokatu zen. Bertatik igo zen preso famatuenetakoa Jose Maria Iparragirre izan zen, 1855 urtean giltzapean sartu zutena Foruen berreskurapenean tematzeagatik. Hain zuzen ere, bere abestietako batek Tolosako espetxean egin zuen egonaldia gogoratzen du.

*Zibillak esan naute
biziro egoki
Tolosan bear dala
gauza erabaki.
Giltzapian sartu naute
poliki poliki
negar egingo luke
nere amak baleki.*

Jose Maria Iparragirre, Tolosa, 1855

Gerra Zibilak iraun zuen bitartean, 1936 urtetik 1939 urtera arte, Tolosako Euskal Herri plazan kokatu zen espetxetik 938 gizon-emakume igaro ziren, nahiz eta askok sufritu zuten espedienterik ireki gabe, ez baitzuten delitu ez kargurik. Oro har, eskualdeko jendea izan ohi zen, baina boluntario poloniarrek ere izan ziren, belgikarrak eta Nazioarteko Brigadetako sobietarrak. Epaitegia eta kartzelak euren egoitzak Euskal Herria plazan egon ziren Nafarroa Etorbidera igaro ziren arte.

Ondoren, 70eko hamarkadan Juan Lope eskultoreak bere tailerra izan zuen historiaz betetako eraikin honetan eta 1982 urtean partzialki berritu zuten eus-kalategia bertan kokatzeko eta betekizun hau izan zuen 1997 urtera bitarte.



Topic zentroko auditorioa, 250 ikuslerentzat edukia duena. 2009

2. Lan arloak

Topic zentroaren lan modua lau ardatz nagusitan oinarritzen da:

- Sustapena eta hedapena.
- Dokumentazioa eta ikerketa.
- Trebakuntza eta birziklapen profesionala.
- Ondarearen kontserbazioa.

2.1. Sustapena eta hedapena

Topic zentroak ez du konpainia iraunkorrik. Jatorri, teknika eta kontzepzio artistiko desberdinetako sormen eta konpainiei pauso emateko programazio askatasun handiena bilatzen du Topic zentroak, ikusleei eskaintza ahalik eta gehien aberas-teko eta artista gehiagori aukerak zabaltzeko.

Espazio hornitu bat denbora batean erabiltzeko interesa duten konpainiekin akordioak egiten ditu Topic zentroak, bertan produkzioak egoitzan egin ditzakete eta mundu osoko konpainien zerbitzura dago; hauek beraien produkzio berri-tarako sormen, muntaia eta entsegutarako ondo hornitutako azpiegitura bat izango dute.

Hedapenaren zati gisa, egitasmoak, sormena, eszenaratzea eta dramaturgia garaikidearen hedapenak bereziki egile gazteena bultzatuko dituen koprodukzio akordioak kontuan hartzen ditu, behin eta berriro bertsioak eginez eta ez beti ikusleek eta sormen originalak merezi duten zorionarekin, maitagarrien ipuin klasikoetara jotzea titiriteroek bultzatzen dituen testu onen hutsune garrantzitsu bat betetzeko asmoz.

Era berean Internetek eskaintzen duen potentzialtasuna ahalik eta gehien aprobetxatu nahi da zentroko ekintzak eta programak bideo-hitzaldi bidez ahalik eta pertsona edo irakaskuntza talde, aisialdiko animatzaile edo artista gehienengana iritsi ahal izateko.

Komunikabideetan Txotxongilo Antzerkiak presentzia handiagoa eskatzeko ekintzak, kritikarien eta iritzi sortzaileen interesa eragiteko ekintzak ere aurreikus-ten dira.

Bere lehenetasunen artean haur ikusleagoa duen txotxongiloaren zentro integral batean gutxiago ezin izan zitekeen bezala, Topic zentroak ikastetxeentzako 18 astetako kanpaina garatu du, Euskadiko neska-mutilei txotxongilo artearekin aldi berean harreman sakon eta ludiko bat izatea ahalbidetuko die ikuskizun on bat ikusiz, artistekin hitz eginez, museoa bisitatuz, txotxongilo erraz bat eraikiz eta Tolosako alde zaharra bisitatuz. Eskola kanpaina hau familia ikusleagoari zein baka-riek helduentzako eskainitako asteburuko antzezkizunekin osatzen da.

Behi-Bis taldea. 'Paperezko istoriak' ikuskizuneko panpinak. 2010



2.2. Dokumentazioa eta ikerketa

Zentro berriak sei informatika postuz osatutako kontsulta espazio bat du eta horietatik mediatekara, bideotekara, ikonotekara eta liburutegira sartu daiteke. Dokumentazio zentro hau txotxongilo artean interesa duten guztientzat zabalik dago, bai ikerketa edo ikasketa helburua dutenentzat baita jakin-min hutsa duenarentzat ere.

Topic zentroko dokumentazio fondoa mundu osoko txotxongilo ikuskizunen 2.000 bideo eta DVD formatuko ondare batekin jaiotzen da; 1.800 kartel, 75.000 argazki, 2.500 konpainia baino gehiagoren literatur dokumentazioa eta 1.300 aletako arte arlo honetan espezializatutako liburutegi bat. Dokumentazio guzti hau digitalizatzen ari dira eta web gunearen bitartez sarean eskura dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzeta eta laguntzari esker. Noski egileen eskubideengandik, eta abarrengandik sortutako eragozpenak salbu.

Era berean, unibertsitateekin koordinazio eta lankidetzeta aurreikusia dago kultura, arte, pentsamendua eta eszena munduarekin lotutako karrera desberdinetan lizentziatutako gazteei ikerketa bekak emateko eta arte konplexu honen alderdi ugarietako batean sakontzen anima daitezen.

2.3. Trebakuntza eta birziklapen profesionala

Arlo honek ez du heziketa arautuaren izaera, autodidaktismoan bereziki oinarritzen diren ezagutzak dituzten gure artisten produkzioen hobekuntza kualitatiborako tresnak ematen ditu, ordea, edo txotxongiloaren artearen erabilpena hezkuntza, osasuna edo aisialdia bezalako arlotan bultzatzeko.

Birziklapen profesionalari dagokionez, ikastaroek edo maisuen tailerrek txotxongilo artearen zeharkakotasuna eta arte plastikoekin, musikarekin, ahotsarekin, multimediarekin, antzerki teknologiarekin, eta abar duen harremana kontuan hartzen dituzte, dramaturgia, zuzendaritza eszenikoa edo interpretazioa bezalako antzerki gertakizun guztien oinarritzko alderdiak ahaztu gabe. Honetan zein txotxongilo munduarekin erlazionatutako beste alderdietan ere, Topic UNIMAREN (Txotxongiloaren Nazioarteko Elkartea) proposamenetara eta lankidetzara zabalik dago.

Beste heziketa maila bat maisuei, aisialdiko espezialistei, animatzaile giza-kulturalei, eta abarri beraien ekintzetan txotxongilo artea erabiltzeko ezagutzak eta tresnak emateari eskainitakoa da.

Noski 8 urtetik gorako neska-mutilei bereziki eskainitako beste maila bat ere badago Topic zentroan, taldean jolasten, beraien eszenifikazio propioak sortzen, beraien txotxongiloak egiten eta antzerkiaz gozaten ikasten erakusteko.

2.4. Ondarearen kontserbazioa

Txotxongiloaren nazioko eta Estatuko ondarearen berreskuratze eta kontserbazioan arreta berezia jartzen ari da Topic zentroko Museoa. Artista handiek produzitutako lanak babesteko behararen aldeko ardura handia dago, galtzea eragozteko;



Topic-eko museoak bilduma garrantzitsua gordetzen du mundu osoko txotxongiloekin

guztion eginbeharra da etorkizunean iraganean gertatutako galera edo espoliazioak saihestea.

Topic arte herrikoi honen ondarearen kontserbazioan laguntzen ari da, galtezko zorian dauden sortzaile bizi zein hildakoen lanen erosketa, ematea edo gordailu kontratuaren bidez. 2001etik UNESCOk ondare mota honengatik arduraturik, gizateriaren ahozko eta ukiezinak diren ondareko lanen lehen izendapenaren deialdia egin zuenetik, txotxongilo artearen zenbait adierazpen erek goraipamen hau jaso dute eta Topic zentroak babesteko apustua egiten du.

3. Espazioak

3.1. Museoa

Topiceko Museoa bi arloren inguruan antolatzen da:

1. **Erakusketa iraunkorra.** Izaera didaktiko edo adierazgarria duen espazioa da, txotxongiloa bere historiaren, kokapen geografikoaren, bere kultur aztarna edo teknika eta kontzepzio desberdinen bitartez erakusten da. Modu erakargarri eta elkarreragile batean aurkeztutako txotxongiloaren interpretazio zentro bezala planteatzen den erakusketa bat da. Museo-grafia eta diseinuaz Dani Freixas arkitektoa arduratu da.
2. **Aldi baterako erakusketa monografiko espezializatuak.** Erakusketa iraunkorraz gain, Topic zentroak badu aldi baterako erakusketei eskainitako espazio bat ere, era monografikoan, beti harrigarria den txotxongiloaren unibertso alderdi bereziei leiho berriak ireki nahi dizkiguna. Zentroak urtean batz besterik hiru erakusketa programatzen ditu.

Bigarren espazio honetan, bertako fondoetatik edo mailegu edo alokairutatik etorritako aldi baterako erakusketa monografiko espezializatuak aurkezten dira. Topic zentroak dagoeneko badu jabetzan edo gordailu moduan bost kontinentetatik datozen teknika desberdinetako mila txotxongilo baino gehiagoko bilduma bat.

Mariona Topic zentroko maskotak harrera egitean eta aurkezterakoan erakusten duen irudimenezko eta bizitzazko mundu berrian, fabulek, istorioek edo ipuin laburrek ere lekua dute, beraietaz hitz egiten duten pertsonai ugarik leku eta misterio zehatzetaraino eramanez.

3.2. Auditorioa

250 ikuslerentzako edukierarekin, egokitutako sarbideekin, ikusgaitasun on bat uzten duen plano oker baten gainean banatutako eserleku eroso eta zabalak dituen auditorioa du Topic zentroak. Areto hau bereziki prestatuta dago txotxongiloen antzezpenez gain, erdi neurriko antzerki lanak, proiektzioak, kontzertuak, kantaldiak, dantza, hitzaldiak, eztabaidak, kongresuak, batzarrak, eta abar hartzeko. Modu honetan, Leidor antzokiaz gain, non 800 ikusle sartzen diren, erdi tamainako antzokia ere badu orain Tolosak.

Eszenatokiak ahoan bederatzi metro ditu, beste bederatzi metro hondoan eta zazpi metro altueran. Elektrifikatutako eta informatizatutako hamalau makila eta aho parean beste lau makila. Bestalde, aretoak zinema eta/edo ikus-entzuzko proiektiotarako hornidura, bat-bateko itzulpenerako eta bideo bitarteko hitzalditarako zerbitzuen erabilpena ere badu.

Entzungelak ere badu entsegutarako, aurre-muntaietarako areto bat, batzuetan ganbara areto gisa edo taldeko jantzeko gela bezala erabil daitekeena, eszenatokiaren azaleraren antzekoa (80 m² gutxi gora behera) eta beste bi jantzigela, bakoitza bi edo hiru pertsonentzako.



Topic eraikina, gauetz argizatuta. 2009

3.3. Taberna

Lehen solairuan kokatua, espazio zabal honen inguruan (150 m²) taberna bat, sukalde txiki bat eta komuna propioak daude. Astean zehar 17:00etatik 19:00etara zabalik dago eta asteburuetan eta jai egunetan museoa zabalik dagoen ordutegian eta ikuskizunak dauden ordutegian zabalik izango da. Espazio honek, zentroko ekintza sozialak betetzeaz gain, ekintza ugari har ditzake:

- Pintura, argazki, diseinu grafiko, eta abarreko erakusketa txikiak.
- Asteburutako kontzertu ez-formal txikiak.
- Taldeen topaketetarako, haur festetarako, eta abarretarako espazioa.
- Topic zentroko esparru guztia bere ekintzetarako alokatzeko aukera ere eskaintzen da.

3.4. Espazioen erreserba

Beraien behar sozialetarako eta antolaketa beharretarako kultur erakundeen, enpresen eta beste motatako erakundeen eskura jartzen diren espazio desberdinak ditu Topic zentroak. Edozein motatako ekintza erosotasunez eta eraginkortasunez antolatzea ahalbidetzen duen instalazio erakargarri eta modernoak ditu.

4. Kontseilu Aholkularia

Topic zentroko Kontseilu Aholkularia arte, kultura, enpresa eta erakundeen munduko 17 ordekariz osaturik dago. Bere helburu nagusia beste pertsona batzuen ezagutza eta esperientziaz baliatu eta Txotxongiloaren nazioarteko etorkizuneko zentroa martxan jartzea eta sendotzearen apustuari erantsitako balio bezala gehitzea da. Organo aholkulari hau osatzen duten kideek norbanakoaren izenean egi-ten dute eta jarraian zehazten direnak dira:

Lehendakaria: Jokin Bildarratz. Tolosako alkate ohia.

Lehendakariordea: Ana Arreche. Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria.

Idazkariak: Miguel Arreche eta Idoya Otegui. Topic zentroko zuzendariak.

- **Ainhoa Arteta.** Sopranoa.
- **Jose Miguel Ayerza.** Adegiko Idazkari Orokorra.
- **Cristina Barrios.** Espainiako enbaxadorea Miamin.
- **Manu Castilla.** Foru Diputatuaren kabineta. Bizkaiako Foru Aldundia.
- **Antxon Elosegui.** Enpresaria.
- **Lourdes Fernández.** ARCOko zuzendari ohia.
- **Mari Carmen Garmendia.** Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailburu ohia.
- **Encarni Genua.** Titiriteroa.
- **Javier Giraldez.** Haiac Fundazioko lehendakaria.
- **Manuel Huertas.** Irakasle eta politikaria.
- **Alberto Iglesias.** Konpositorea.
- **Lucia Lacarra.** Dantzaria.
- **Joxean Muñoz.** Tabakalerako zuzendari ohia.
- **Luis Mari Oyarbide.** Abokatua.
- **Juan Ignacio Vidarte.** Guggenheim Bilbao Museoko Zuzendari Orokorra.
- **Lander Zabala.** Publizista.
- **Vicente Zaragüeta.** Donostiako Aquariumeko lehendakaria.

Ana Arreche. *T.E.E.-ko Lehendakaria*

Tolosako Ekinbide Etxeko presidente gisa, amets bat gauzatzea dela iruditzen zait, sortu ginenetik berrogeigarren urteurrena betetzen den honetan gauzatzeko dena. Kontseiluko kide izatea erantzukizuna eta, aldi berean, erronka da; zirrarez hartzen dut nire gain, baina baita umiltasunez ere, kulturaren, enpresaren edo politikaren munduko pertsona ospetsuekin partekatuko baitut.

Ainhoa Arteta. *Sopranoa*

Txotxongiloen mundutik oso hurbil sentitzen naiz. Tolosarra naizen aldetik, logikoa da; Txotxongiloen Jaialdia gure historiaren zati banaezina da. Baina, abeslari gisa ere, nire bizitza titiriteroen antzekoa dela iruditzen zait batzuetan; nik ere hiriz hiri bidaiatzen dut jendeari gustatuko zaion ikuskizuna eskaintzeko. Horregatik, bihotz-bihotzez eskertzen dut Topic zentroko Aholku Batzordean parte hartzeko eta proiektu hau sendotu eta denok nahi dugun proiektzioa emate aldean lan egiteko eman zaidan aukera hau.

Jose Miguel Ayerza. Adegiko Idazkari Orokorra

Sustatzaile eta sostengu izan duen erkidegoan errotuta dagoen ekimen kulturalak jauzi bat egin du; tokian tokikoa globalarekin konbinatuz, nazioarteko eginez, horretarako dimentsio egokia hartu du, berritzailea da eta ingurunearekiko sinergiak sortzen ditu. Gure txaloak, lana eta babesa merezi ditu. Bultzada berri honek gu denok lor dezakegun arrakasta izatea espero dut.

Cristina Barrios. Espainiako enbaxadorea Miamin

Txotxongiloen mundua erabat magikoa da, haur, gazte eta helduak harra-patzen dituen misterioz betea. Iraganeko haurtzarora itzultzeko eta amesteko aukera ematen du. Txotxongiloen antzerki mundua, txotxongiloen edertasun sofistikatuarekin, haien mugimenduen samurtasun eta hauskortasunarekin, mantendu beharreko kultura anitzeko adierazpena da. Niretzat pribilegio bat da Topic zentroko Aholku Batzordean parte hartzea eta Tolosako zentro integral berri hau sustatzen eta zabaltzen lagundu ahal izatea.

Jokin Bildarratz. Tolosako Alkate ohia

Harro egon behar dugu: tolosarron ilusioari eta ahaleginari esker, errealitate bihurtu da Topic herri ekimena. Hainbat erakunde eta partikularri bere magia kutsatu dio, eta horiek ere jada bere sentitzen dute Topic da. Luxua da foro berean gure kulturako pertsona ospetsu hauek biltzea bera, baina benetan zirrarragarria da proiektu honetarako jarri duten gogo bizia eta konpromisoa ikustea. Ongietorri Tolosara eta Topic zentrora.

Manu Castilla. Foru Diputatuaren kabineta. Bizkaiako Foru Aldundia

Tolosarra naizen aldetik, Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia sortzen eta hazten ikusi dut. Bere garapenaren lekuko izan naiz, 26 urte hauetan proiektu bat izatetik nazioarteko erreferentziatzko jaialdi izatera nola pasa den ikusi dut. Arduradunek txotxongiloen zentro egonkorra sortu behar zela adierazi izan didate beti. Egun, desio horiek errealitate bihurtu dira eta asko pozten nau “txotxongiloen etxea” den zentroko kide izateak eta nire harri koskorra ekartzeak.

Antxon Elosegui. Enpresaria

Tolosako Ekinbide Etxearen proiektuaren sorreran eta lehenengo urteetan gure proiektuak ameslari eta kixoteskotzat zituztenen kritikak jasan behar izan genituen. Kixote gogora ekarriz hartzen genuen indarra: “Zaunka egiten dute, beraz, zamalkatzen gara”. Eta zamalkatuz eta zamalkatuz, honaino iritsi gara. Garai hartako ametsetan oso zaila zitzaigun egungo errealitatea irudikatzea. Gaur egun kultur etxe aktiboa dugu, kezkak sortzen dituena, eta etorkizuneko zentro bat, belau-naldi berriek, lan eginez, adorez eta elkertasunez, On Kixote Mantxako kapare burutsuaren irudimena eta Santxo Pantzaren gizatasuna inspirazio iturri direla.

Lourdes Fernández. ARCOko zuzendari ohia

Nire iritiz, oso proiektu originala da, nazioartekoa, eta berezitasun horrek egiten du posible. Nire ustez, oso lan zehatza egin da 26 urtez Tolosatik. Egindako lanak eta garatutako kulturak nire babesa dute, inolako baldintzarik gabe.

Mari Carmen Garmendia. *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu ohia*

Gizartean gertatzen diren hainbat gauza interesgarriren antzera, tolosar ekintzaile eta saiatu batzuen ametsaren emaitza da Titirijai. Horren atzean ahalegin handia eta konpromisoa daude, baina baita gozamina, sormena, berrikuntza, partekatzea eta abar ere. Urte arrakastatsuen ondoren, Txotxongilo Jaialdiak beste abentura bati ekin dio Topic izenarekin. Proiektu honek sendotzea, berrikuntza eta ilusioa dakartza, eta atxikimendu instituzionalak, sozialak eta artistikoak erakartzeko gai izan da, partaide nauen Topic zentroko Aholku Batzordeak adierazi bezala.

Enkarni Genua. *Titiriteroa. Filosofia eta Letretan lizentziatua*

1971 urtean txotxongiloek eta guk (Enkarnik eta Manolok) geure seme-alaben ikastolan egin genuen topo eta lehenengo ikuskizun hark betirako harrapatu gintuen. 1982an Tolosako talde batek laguntza eskatu zigun Txotxongiloen Jaialdia abian jartzeko eta, urtetik urtera, txotxongiloen hariekin korapilatzen jarraitu genuen. Laster hasi ginen txotxongiloen etxe handi batekin amets egiten. Beti jakin nuen han behar izango nindutela.

Manuel Huertas. *Irakaslea eta Politikaria*

2004an, diputatu gisa Madrilén, Miguel eta Idoia ezagutzeko aukera izan nuen eta eurek eman zidaten Tolosako Ekinbide Etxeak zabaltzeko abian zen proiektuaren berri. Garai hartan, proiektuak bultzada handia behar zuen proiektu unibertsala izango zuen txotxongiloen proiektu kultural garrantzitsu bihurtzeko. Gaur egun, hala izateko bidean da. Nigan sortu zen konfiantzak eta Oscar Renedoren laguntzak Tolosan Txotxongiloaren Arteari buruzko Zentro Integrala sortzeko ilusio hura neure egitea lortu zuten. Izugarri gustatzen zait eta ohore handia da niretzat Topic zentroaren bidez horri lotuta jarraitzea. Kontseilutik dihardut elkarlanean, Zentro Integraleko presidentea eta Tolosako alkatea den Jokin Bildarratzekin.

Alberto Iglesias. *Konpositorea*

Topic proiektua paregabea iruditzen zait eta Tolosa tradizio honetako lekurik garrantzitsuena bihurtzen du; ea tradizioa berritzen laguntzen duen. Nire ustez, musikak partze-hartze nabarmena izan dezake "antzerki minimo" honetan eta narrazioari, zinean edo operan bezala, adierazpidearen indar guztia eman diezaiolke. Arte birtualak pixkanaka gailentzen doazen garai honetan, antzerkiak hausnarketarako espazio publiko izaten jarraitu behar luke.

Lucia Lacarra. *Dantzaria*

Ohore handia da niretzat txotxongiloaren nazioarteko zentroari lagundu ahal izatea, ez bakarrik proiektu kulturala eta berdingabea delako, baizik eta baita txotxongiloei merezi duten garrantzi artistikoa eman behar zaielako ere, horixe izaki, gu konturatu gabe, haurtzaroan antzerkiarekin dugun lehenengo harremana. Hasiera-hasieratik, ondoren ere, edozein adinetan, gustuko izango ditugun emozioak sortzen dizkigute. Nire ustez, txotxongiloak benetako artea dira.

Joxean Muñoz. *Tabakalerako zuzendari ohia*

Ohorea da Topic zentroan Aholku Batzordeko kide izendatua izana. Tolosak 26 urtetan Txotxongiloen inguruan egin duen lana hezur-mamitzen du eta aitzine-ratzen du Topic zentroak. Berrikuntzaren, ikerketaren, sormenaren eta artxiboaren inguruan urrats handi eta atzera bueltarik gabea dakar. Egindako lana sendotzea-rekin batera, leku berezi bat eman dio Tolosari, eta Euskal Herriari, Europan eta Munduan. Ahalegin horretan kide izateko aukeraz sentitzen naiz harro. Txotxon-giloen artearen berezitasuna lantzeaz eta hedatzeaz gain, Topic Arteak txotxon-giloei zor dien guztia azaltzeko eta ikertzeko gunea ere izan daitekeela uste dut. Izan ere, panpina, izaki mekaniko eta edonolako txotxongiloek lilura berezia eragin dute bai arte plastikoetan, bai arte eszenikoetan, zineman edo literaturan. Txotxon-giloak gainerako arteekin eta ikusizko kulturaren gainerako agerpenekin duen lotu-ra sakona lantzeko aukera ikusten dut Topic zentroan. Aholku batzordean kide izango ditudanen maila profesional gorenak eta haien jardunaren aniztasunak are-agotzen du abentura intelektual benetan aberasgarri bat hasteko zorian gaudela-ko sentipena. Hala biz.

Luis Mari Oyarbide. *Abokatua*

1995ean hasi nintzen txotxongiloen munduan eta Titirijain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako zuzendaria nintzenean, eta Tolosako Ekinbide Eteak, giroak, espirituak... txundituta utzi ninduten. Hala, txotxongiloen zale amorratua bihurtu naiz. Ohore handia da niretzat Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa izango denaren Aholku Batzordeko kide izatea.

Lander Zabala Otermin. *Publizista*

Garrantzitsua iruditzen zait espresio artistiko bat sustatzearekin erlazionatu-tako guztia eta, zalantzarik gabe, txotxongiloak espresio artistikoa dira. Topic zen-troaren balio erantsia, nagusiki, haurrei zuzendutako proiektua izatean datza. Haurren sormena baloratu behar da eta Topic zentroak alderdi garrantzitsua eskain dezake irudimenaren, estetikaren eta komunikazioaren garapenean, ohiko bitar-tekoetan jasota ez zegoen alderdia. Gainera, nazioarteko zentroa denez, ideia horien adierazpena ere berdingabea da.

Juan Ignacio Vidarte. *Guggenheim Bilbao museoko Zuzendari Orokorra*

Ikuspuntuak eta ikuspegiak gehitzea. Proiektuak beste errealtate eta ego-era batzuetara zabaltzea. Bi planteamenduak arrakastarako formulak dira eta edo-zein ekimen kultural aberasten laguntzen dute. Partekatzea, eztabaidatzea edota ezagutze ezinbesteko jokabideak dira aurrera egiten jarraitzeko eta Topic zentroan izateko eta lan egiteko modu gisa hartu dute. Horrek bereziki interesgarria egiten du zentro berri honetako Aholku Batzordeko kide izatea.

Vicente Zaragüeta Laffite. *Donostiako Aquariumeko lehendakaria*

Beti haurra. Haurra beti, nahiz eta heldua izan, panpin handiekin jolasean bezala, eta zahartzarora iristen zara oraindik harra izanda... Eskerrik asko txotxon-gilo.

5. Ateak zabalik: komunikazioa eta digitalizazioa

5.1. Dokumentazioa euskarri digitalean

Zentro berriak arlo ezberdinak ditu; mediateka, bideoteka, irudien biltegia, liburutegia. Guztiak zabalik daude azterketa edo ikerketarako helburuak dituenarentzat edota jakingura duen edonorentzat.

Topic zentroko dokumentu fondoa mundu osoko txotxongiloen 1.500 bideo eta DVD biltzen ditu; 1.800 kartel; 15.000 argazki; 2.500 konpainien literatura dokumentazioa eta diziplina artistiko honetan espezializatua dagoen 900 liburu biltzen dituen liburutegia. Dokumentazio guzti hau digitalizatuta dago erabat eta internet bitartez eskuragarri dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainitako laguntzari esker.



Puppet Theatre Puk. Japoniar taldearen 'Woof el osito' obra. 2010

5.2. Topic sarean

Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak bere web orria (www.topictolosa.com) martxan jarri du sarean ere mundu osoan txotxongiloen munduak erreferente bihurtzeko helburua duen proiektu honen zabalkundearekin jarraitzeko. Horrela, orrialdea euskaraz eta gazteleraz eskuragarri izateaz gain, ingelesez ere publikatzen da nazioarteko publikoari ere proiektua ezagutzera emateko. Era berean, topictolosa.com orrialdeak bere zerbitzuetan ere Google itzultzailea eskaintzen du 33 hizkuntzetara informazioa itzultzeko aukera ematen duena, kataluniarretik edo frantsesetik hasi eta exotikoagoak diren beste hizkuntza batzuetaraino, filipinarra, vietnamera, kasu.

Topic zentroaren web gunea informatzeko helburua gainditu nahi du eta txotxongiloen maitaleak diren guztien (haurrak, gazteak, helduak eta profesionalak) topaleku izan nahi du. Guztiek aurkituko dituzte interesgarriak zaizkien materialak, euren neurrira egindakoak, bakoitzaren nahiak kontutan hartuta. Hala ere, atariak partaidetza sustatzeko proposamenak ere gehitzen ditu. Izan ere, topictolosa.com orrialdeak informazioa bi norabideetan joatea nahi du eta Internet bidez egiten diren ekarpenekin aberastea. Hala, bloga ere martxan dago, bertan iritziak idatz daitezke, erabiltzaileek euren bloga sortu dezakete eta gainontzekoekin komunikatzeko era balio du.

Gainera, txotxongiloen munduan eskaintza zabala biltzen du. 2.000 argazkitik gora, Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko bideoak eta kartelak, jaialdiak, liburuak, konpainiak jasotzen dituen datu basea ere eskaintzen du, hazten joango dena.

Era berean, Topic zentroak ahal bezain beste ustiatuko ditu internetek eta satellite bidezko loturek eskaintzen dituzten aukerak, zentroak antolatzen dituen ekintza eta egitarauak bideokonferentzia bidez ahal den jende, talde, animatzaile edo artista gehienari helarazteko.

5.3. Topic zentroaren lehen argitalpena

Erein etxeak *Atxor bat esku artean: Txotxongiloak* liburua argitaratu du. Topic zentroak bultzatu duen lehen argitalpenaren izena da. Enkarni Genua da egilea eta txotxongiloen artearen transmisiorako sistematizazio lana egin eta 16 urte bitarte haur eta gaztetxoei zuzenduta dago.

Topic zentroak dituen helburuetan beste aurrerapauso bat suposatzen du argitalpen honek, hau da, hezkuntza munduan eta aisialdian txotxongiloen sarre-rra errazteko tresnak eskaintzeko bidean. Arlo hauetan geroz eta interes haundia dago txotxongiloak gehitzeko.

Bestalde, esan beharra dago Titirijai jaialdiak bere aldizkari propioa ere kale-razten duela; Txotxongiloen lagunen aldizkaria” izenburupean. Topic zentroko web orrialdean eskuragarri daude ale guztiak eta osorik irakur daitezke.

5.4. Topic zentroari buruz argitaratutakoa

Txotxongiloen arteari eskaini zaion eraikin honi buruzko argitalpenak plazaratu dira zentroa zabaldu zenetik eta, gainera, Titirijai jaialdiaren 25. urteurrenaren harira ere liburu bat kalean dago. Argitalpen hauen helburua Tolosako Ekinbide Etxeak egin duen lana ezagutzera ematea, Topic zentroari buruzko informazioa zabaltzea eta hausnarketa piztea. Bi libururen aipamena honatx:

Titulua: **25. Titirijai Tolosa 2007**

Testuak: Rosa Izquierdo eta Titirijai

Tolosa: Tolosako Ekinbide Etxea, 2007

420 or. : ir. ; 25 cm.

Argitalpen honetan nazioarteko jaialdiari errepassoa egiten zaio, urtez urte, 1982. urtean martxan jarri zenetik, eta arrakastaren gakoak ere aipatzen dira. Horretarako, ikuspegi ezberdinak biltzen dituzte, pertsonai ezberdinen iritziak metatuz.

420 orrietan zehar hainbat elkarrizketa egiten dira, jaialdiarekin zerikusia dutenak, txotxongiloaren arteari lotuta daudenak edota urte hauetan zehar zeresana izan dutenak Titirijairen ibilbidean: Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari ezberdinak elkarrizketatzen dira, Enkarni Genua txotxongilolaria joan direnei buruz mintzatzen da, Idoya Otegui zuzendariak erakundeei buruz hausnarketa egiten du, Txetxo Gaztañak pertsona eta pertsonaiei buruz galdetutakoa erantzuten du, Los Duendes taldeak txotxongilolariei buruz hitz egiten du, ikuslegoaren izenean Juanma Goñi kazetariak hitz egiten du, Miguel Arretxek espazio eszenikoei buruz,

kalearen izenean Antxon Eloseguik, elkarteen iritzia Jose Luis Peciñak ematen du argitalpenean, Koldo Gorostiagak erakusketei buruzko ikuspegia ematen du, Manolo Gómez eta Nekane Garaialdek ekintza paraleloak aipatzen dituzte, Ismael Lete epaimahaiari buruz mintzatzen da, Frantxis Lopez de Landetxek kanpo oihartzunari buruz hausnarketa egiten du eta, azkenik, Tolosako alkate ezberdinak Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroari buruzko iritzia ematera gonbidatzen dira.



25. Titirijai Tolosa 2007

Titulua: **Topic, Txotxongilo Mundua = Topic, un Mundo de Títeres**


Testuak: Xabier Iturbe Otaegi; Miguel Arreche; Toni Rumbau

Donostia: Kutxa Fundazioa, 2009

134 or. : ir. ; 30 cm.

ISBN: 978-84-7173-540-9

Laburragoa izanagatik, 2009 urtean argitaratu zen argitalpen hau da Topic zentroari buruz idatzi den lehena, Kutxa Fundazioaren eskutik. Bertan, Tolosako zentro berria aurkezten da eta eraikinak dituen helburuen berri ematen da. Jarraian, ilusioen munduan barneratzen da irakurlea eta eraikinak eskaintzen dituen zerbitzu eta txoko "magikoak" erakusten dira. Gainera, txotxongiloen sorlekuari buruz, hau da Asiari buruz, hainbat zertzelada ere ematen dira liburuan. Azkenik, Mariona Masgrau aipatzen da, artista eta txotxongilolaria, Tolosako zentroak Mariona hartu baitu maskotatzat.



6. Proiektu museografikoa

Topic zentroaren proiektu museografikoak aipamen berezia merezi du. Helburu nagusia haurrak eta helduak txotxongiloen artearen mundura hurbiltzea da, tradizio handietatik hasi eta egungo sortzaileetara. Eta hori guztia eskolei eta familiei zuzendutako funtzio hezitzailea eta haurren ametsezko munduan gero eta errotuago dauden ikus-entzunezko baliabideen ekarpen eta elkarreragin posiblea ahaztu gabe. Dani Freixas arkitekto kataluniarrak hartu zuen Topic zentroko proiektu museografikoa garatzeko ardura.

6.1. Bilduma garrantzitsua

Horretarako, Topic zentroak txotxongiloen bilduma garrantzitsua du. Bilduma horretan, mundu osoko hainbat herrialdeetatik ekarri diren eta teknika ezberdine-

tan oinarrituta mugiarazten diren txotxongiloak daude. Asiako herrialdeetako erakusgaia da ugariena, baina bilduman badira, halaber, Amerikako, Afrikako eta Europako txotxongiloak ere. Guztira, 1.400 txotxongilo daude. Funtsa Titirijai txotxongiloen jaialdian izan diren partikular eta konpainien hainbat dohaintzari esker osatu da, edo erosketa, mailegu nahiz gordailuen bidez, horien artean, Mariona Masgrau bilduma, bere semeak, Octavi Rumbau Masgrauk, lagatakoa, Eugenio Navarro bilduma eta Joan Baixasen ekarpena, Joan Miroren Mermarekin.

Topic zentroko oinarriak XX. mendeko bigarren erdialdeko sorkuntza interesgarriak diren arren, nabarmendu beharrekoak dira XVIII. eta XIX. mendeetako itzal antzerkien bilduma edo XIX. mendeko harizko itzal antzerkiena. Lehenaldiaren ikuspegi hau oso lagungarria da oraina ulertzeko eta etorkizuna asmatzeko.

6.2. Bisita: jokia

Topic zentroaren helburua txotxongiloaren mundua originaltasunetik eta berezitasunetik aztertzea da. Hori dela eta, txotxongiloaren munduko sekretuak eta altxorak gorde, babestu, ikertu eta erakusteko leku bat bisitatzea proposatzeaz gain, tradizionalki egin izan den moduan, bisita joko bat edo aurkikuntza bat bailitza ikustearen alde egiten du; bertan, jakin-mina eta konplizitatea funtsezkoak dira. Horrela, ikusleari, bere adina edozein dela ere, parte hartzeko eta ez, soilik, ikusteko bisita egitea proposatzen zaio. Horretarako, Dani Freixas arkitekto kataluniarak eta bere taldeak plato, antzoki edo, areago, laborategi kontzeptutik hurbilago dagoen eremua sortu dute. Eremu horretan, hormak eta sabai beltzak, ispiluak, argiaren tratamendu berezia, izaren gaineko irudiak, itzalezko izarak, idulki, mahai, beira-arasa, pantaila edo antzoki txiki gisa erabiltzen diren kutxak, etab. elkartzen dira. Azken batean, oroitzapenak sortzeko, imajinazioa pizteko eta jokia sustatzeko pentsatutako eremua, museoaren kontzeptu tradizioaletik nabarmen urruntzen dena.

6.2.1. Erakusketako ibilbidea

“Txotxongiloen etxeko” bisita zazpi gune handiren inguruan antolatzen da. Gune horiek ikus daitekeen hariak lotzen ditu eta, euskarri ezberdinen bidez (kutxak, antzoki txikiak, atea, apaingarriak, ispiluak, izarak, argiztapena eta proiektagailuak), bakoitzeko edukiak berritza ahalbidetzen du eta malgutasuna ematen du. Horrela, erakusketa iraunkorra maiz berritzen den eta, ondorioz, Topic zentroko bildumaren ikuspegi ezberdinak ematen dituen gune aldakor bihurtzen da. Hona hemen “Txotxongiloen etxeko” ibilbidean dauden guneak:

- **Ongietorria**

Museoko maskotak, Marionak, bere sekretuak ezagutzeko aukera ematen digu.

- **Kontrol gela**

Bertan, geografiaz eta tradizioez hitz egiten da eta ezagutzen ditugun txotxongilo guztiak non dauden kontrolatzen du.

- **Pertsonaien galeria**

Mundu osoko panpinak gordetzen dira. Titiriteroak bizitza ematen die eta, hala, edozein istorio azal diezagukete. Era berean, pertsonaia bihur daitezke eta beren izaera azalduko digute: ona, gaiztoa, itsusia, heroia, doilorra, etab.

- **Tailerra**

Proba aretoa. Bertan, txotxongiloak eta antzokiak erabiltzeko eta eraikitzeko teknikei buruzko sekretuak gordetzen dira, eta horrek emango die bisitariei elkarri eragiteko aukera. Gune hau beste hirutan banatzen da: kutxen aretoa, ondoren tailerrean erabiltzen diren material, tela eta maskara guztiak gordetzeko; ezustekoen kutxa, ikuskizun berezietarako, objektuen eta hatzen ikuskizunetarako eta abarrerako; eta kutxa txikiak, ikuskizun txikietako ezustekoak gordetzeko.

- **Sortzaileen korridorea**

Titiriteroak beste artista, musikari, pintore eta eszenografoekin elkartzeko eta beren lorpenik handienak gordetzeko,

- **Ganbera magikoa**

Fantasiatzko instalazio edo antzeztokiak gordetzeko erabiltzen da.

- **Istorioren biltegia**

Mundu osoko txokoetatik ekarri diren txotxongiloak beren tradizio eta kulturrekin batera gordetzeko.

- **Ontziratutako denboraren aretoa**

Animazioko zineari buruzko sekretuak gordetzen dira bertan. Gune hau ere beste hirutan banatzen da: barrearen makinak, robotak, *animatronic* delakoak eta beste panpina mekaniko batzuk gordetzeko; ametsezko munduaren artxiboa, istorio, ipuin eta fantasia guztiak gorde eta erakusteko.

- **Tribuna**

Museoko laborategiak egiten dituen edo beste museo batzuekin trukutzen dituen aurkikuntzak biltzen ditu.

6.2.2. Ikus-entzunezko produkzioak

Proiektu museografikoa ikus-entzunezkoetarako eta multimediarako diseinuak osatzen du. Diseinu hau, gainera, tresna didaktiko gisa ere erabiliko da ibilbide nagusian. Hiru muntaia nagusi daude, finkoak, baita beste zortzi ere ibilbideko beste gune batzuetan kokatuta, oraindik zehaztu ez diren gaietarako buruzkoak, batzuk erabiltzeko eta eragiteko teknikekin lotuta eta beste batzuk, berriz, hainbat arlo ukitzen dituztenak.

6.2.3. Kontrol gela

Kontrol gelako ikus-entzunezkoak txotxongiloen mundura hurbiltzea proposatzen du, panpinak, irudiak, erabilera, tradizioak eta geografia uztartuta. Ikus-entzunezkoa baino gehiago, multimedia azalpena da eta, ispiluen eginkizun eszenikoa eta teknologiararen baliabideak erabilita, munduko txotxongilo teknika eta tradizio uga-

riak zeintzuk diren, non dauden eta nola agertzen diren azaltzen zaigu eremu honetako parez pareko bi aldetan.

6.2.4. Pertsonaien galeria

Amailerarik gabeko apal batean sailkatuta jarritako mundu osoko txotxongiloak aurkeztuta, pertsonaien galeriako ikus-entzunezkoak txotxongiloen arloko pertsonaia eta protagonista nagusiak ezagutarazten ditu: zeintzuk diren onak, gaiztoak, itsusiak, heroiak, maltzurak, magjkoak, iruzurtiak, etab. Eta hori guztia, mito, tipo, liturgia eta legenda gisa hartuta, munduko leku desberdinetan errepikatu egiten direla edo antzekoak direla eta sentimendu eta sinesmen berberak dituztela ulertzeko.

6.2.5. Istorioen artxiboa

Istorioen aretoko ikus-entzunezkoa protagonistatzat txotxongiloak dituzten kontakizun guztien saski-nahaskia da. Kontakizun horiek ia gure ametszko mundu fantastiko osoa biltzen dute neurri handi batean. Liburu amaigabearen orrialdeak istorio horiekin guztiekin betetzen dira eta, horietan, titiritero ospetsuen era guztietako teknikak, esperientziak eta ikuskizunak ekartzen dira berriz ere gogora. Zentroko artxiboaren eta liburutegiaren erakusgai handi baten modukoa da.

6.3. Dani Freixas

Dani Freixas arkitekto kataluniarrak hartu zuen Topic zentroko proiektu museografikoa garatzeko ardura. Berak sortu zuen, Vicente Miranda, Eulàlia González eta Vicenç Bourekin batera, Varis Arquitectes sozietate profesionala. Honek hainbat eratako proiektuak prestatu, zuzendu eta gauzatu ditu arlo ugarritan: arkitektura, eremu publikoa, museografia, barne diseinua eta muntaia iragankorrak.

Hiru hamarkadetan aintzatespena eta saria jaso duten lanen artean azpimarratu beharrekoak dira Zsa-Zsa koktel tabernaren interiorismoa (1988ko FAD saria), Seltz jatetxekoa (1992ko FAD saria) eta Madrilgo Nodo jatetxekoa (1999ko Ayuntamiento de Madrid saria); Vintró familia bakarreko etxebizitzaren arkitektura (1976ko FAD saria), baita Ramón Lull eraikinean kokatutako Komunikazio Zientzien Fakultatearena ere (1997ko Ciudad de Barcelona sariaren finalista); Clot parkeko hirigintza (1986ko FAD saria); Rey Favila itsasontzian kokatutako “100 Años en Barcelona. Mariscal en el Moll de la Fusta” erakusketako eremu iragankorrak (1987ko FAD saria), baita “El Dublín de James Joyce” erakusketakoak ere (1995eko FAD saria); “Tierra!!!” erakusketako multimedia muntaia 1992ko Sevillako Erakusketako Nabigazioaren Pabiloian (Ikus-entzunezkoen Nazioarteko Epaimahaiaren –FIAV– 1992ko Sari Nagusia), eta “El Mundo del Cister en Cataluña” erakusketakoa Santes Creus monastegian (2001eko Profesionales de Turismo Internacional de Tarragona saria).

Aipagarria da, halaber, Italiako Taranto probintzian egindako Felifonte jolas parke tematikoa. Proiektu handia izan zen eta ondorengo lanak egin ziren: hirigin-

tza, arkitektura, interiorismoa eta ikus-entzunezko instalazioak. Horrez gain, nabarmentzekoak dira Bartzelonako Musikaren Museoa (2007ko FAD sariaren finalista) eta Minas de Gavà parke arkeologikoa (iritziaren 2007ko FAD saria eta lehenengo saria Baix Llobregat, Alt Penedés i Garrafeko Arkitekturako 2. Trienalean, 2008an).

Eremu pertsonalean, Dani Freixas arkitektoa 90eko hamarkadako interiorista hautatu zuen *Diseño Interior* aldizkariak 2000n eta Zientziaren eta Teknologiaren Ministerioak eta Barcelona Centre de Diseño Fundazioak ematen duten Diseinuaren 2001eko sari nazionala eskuratu zuen. 2004an Kataluniako Diseinatzaileen eta Dekoratzailen Elkargo Ofizialak ematen duen Santiago Marco domina lortu zuen; 2005ean urteko Gabanéense izendatu zuen Gavàko Udalak eta 2007an Kataluniako Generalitateak Arkitekturaren eta Eremu Publikoaren sari nazionala eman zion Minas de Gavà parke arkeologikoagatik.

Une honetan Varis Arquitectes SLk ondorengo lanak ditu esku artean: Tibidabo jolas parkea birmoldatzeko lanak; Espulga de Francolíko (Tarragona) Landa Bizitzaren Museoaren proiektu arkitektoniko eta museografikoa; Sabadelleko Gas Museo berriaren proiektu arkitektoniko eta museografikoa; eta Bartzelonako Born auzoari buruzko Museoaren proiektu museografiko eta museologikoa, Bopba Arquitecturarekin elkarlanean. Ondorengoetan ere badihardu: Castellars delakoei buruzko Museoaren (Tarragona) proiektu arkitektoniko eta museografikoan; Santa Coloma de Gramaneteko (Bartzelona) Torre Balldovina Museoaren proiektu arkitektonikoan; eta lehengo Gran Vía de Bilbao zine aretoa birmoldatzeko proiektuan, Sala BBK Bilbao kulturgune bihurtzeko.

6.4. Ekarpn berriak

Etengabeaz hazten doa Tolosako Topic zentroko fondoa. Ghanatik (Afrika) iritsi dira aurten harizko bi txotxongilo eder Tolosako Topic zentrora. Herralde horretan Espainiak duen enbaxadoreari, Julia Alicia Olmo y Romerori esker, bidai luze hau egin dute. Pixkanaka Topic bere fondoak handitzen ari da eta zehazki Afrikako txotxongiloen fondoa. Gaur egun, Mali, Burkina Faso, Ghana eta Tuneztik etorritako txotxongilo lagunak daude Tolosako eraikinean.

Bestalde, zazpi bizilagun berri ere iritsi dira aurten Topic zentrora. Gonbidatu berriak Kubatik dagoz, zehazki Matanzas herritik, Galeria El Retablo, Zenen Calero diseinugile eszenikoak zuzentzen duen eta txotxongiloaren irudiaren sustatzailea den zentroko *atrezzo* tailerrean egindakoak. Dora Alonso idazleak 1956. urtean sortu zituen Pelusin del Monte eta Perez del Corcho Kubako Txotxongilo Nazionalak, eta Pepe Camejoren irudia, Kubako Txotxongilo Nazionalekoak osatzen dute orain 1.500 pieza baino gehiago dituen bilduma.

Kubako txotxongilogintza irudikatzen duten panpina horiez gain, Bebita Turulata ere badago, tantozko mantal eta txirikorda ilunekin; Doña Mraia Piruli, Corchoren alarguna; Pelusinen amonaxoa; Gelasito Tirabeque eta bere neskalguna den Tontolina Perendengue, biak Peluso Patatusoren lagunak. Eta animaliak ere bai: Gruñon de la Perreta handia eta Huesos Pelados, eta bere laguna den,

Chilingo Findingo txikia. Guztiak dira erreproduzio fidelak Calero Medina eta bere errealizadoreen aurrean, 1961 eta 1963 urte bitartean larunbatero telebistan agertzen ziren talde hartako erreproduzioak.

Kuban sortu diren txotxongiloen artean, Pelusin da eszenan gehien iraun duena. Idoya Otegui eta Miguel Arreche Topic zentroko zuzendariek Karibeko irlara bidaiatu zuten Kubako txotxongiloen familia ezagunena Tolosan ordezkatu egon zedin, bost kontinenteetatik etorri diren hainbat piezen alboan.

7. Aldiriko erakusketak

7.1. Maliko txotxongiloak, lehenengo erakusketa (09-11-27/10-2-28)

Tolosako Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroak Maliko txotxongilo afrikarrei eskaini zien lehenengo aldiriko erakusketa. Maskarek, animalien buruek eta kolore handiko eta presentzia txundigarriko pieza erritualek osatzen dute herrialde afrikarretik iritsi zen bilduma harrigarri hau.

Edorta Kortadi arte kritikoak “Deia” egunkarian artikulua kaleratu zuen erakusketa ikusi ondoren. Bertan ondokoa idatzi zuen

(...) Bolumenak, formak, koloreak, oihalak osatzen dute pieza horietan ondo egituratuta dagoen eta globala den zerbait. Espresiorik gabeko aurpegiak, errituak eta misterioak direnak, puntua eta kontrapuntua jartzen diote fantasiako eta magiaz betetako mundu bati. Horietan guztietan jaso dezakegu urrutiko Afrikako indarra eta misterioa. Harritzen utz gaitezen magiaz betetako mundu batez.

7.2. “Txina, tradizioa duten pertsonaiak”, bigarrena (10-3-20/10-6-8)

Topic zentroak 2010ko martxoan inauguratu zuen bigarren aldiriko erakusketa: “Txina, tradizioa duten pertsonaiak”. Antzerki balio handia duten 110 pieza bildu zituen erakusketak, horietatik erdiak itzaletako txotxongiloak zirenak. Topic zentroko fondoetako txotxongiloak dira eta kasu askotan lehenbiziko aldia da jendaurrean erakusten direna, izan ere hauek ez daude museoak eskaintzen duen erakusketa egonkorrean.

Maliri eskaini zitzaion lehenbiziko aldiriko erakusketa eta bigarren honek Txinako txotxongilo tradizionala ondo erretratatzeko eta panpinak sortzeko eta maneiatzeko erabili diren teknika ezberdinak: harizko txotxongiloak, eskularruzkoak eta itzaletakoak. Harizkoak dira hain zuzen ere Topic zentroko fondoak dituen zaharrenak, XIX mendekoak. Gainera, horietako batzuk museoan bertan zaharberri dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako diru ekarpen bati esker. Hagatxoak duten txotxongiloei dagokionez, Txotxongiloaren Nazioarteko Batasunak (UNIMA) oparitu zituzten Tolosako Topic zentroari bere inaugurazioa zela eta.

Hala ere, Txinako erakusketa bat erakusteaz haratago doa bilduma hau. Bereziki, Txinako txotxongilo tradizionalak banatzen diren sei kategoria handitan zentratzen da, pertsonaiek istorio baten barruan jokatzen duten paperaren arabera. Museografia arloko eta dokumentazio arduraduna den Maria San Sebastianek

dioenez, “euren jatorrizko herrialdetik kanpo egindako leku gutxitan aurki genezake halako erakusketa osatua Txinako txotxongiloen inguruan eta horrela aurkeztua, gainera”. Erakusketa honek duen balio bereizgarriena, “eskaintzen duen ikuspuntuan dago, diskurtso narratzailean zentratuz, Mendebaldean oraindik egin ez den zerbait delarik”.

Txinako txotxongilo antzerkiko istorioak aldatu egiten dira, baina ez pertsonaiak. Hauek bereizgarri egiten dituen aurpegiera, keinu eta itxura dute eta Txinako ikus-entzuleek erraz ezagutzen dituzte, antzerki obra bakoitzean kontatzen ari den istorioaren edukia kontutan hartu gabe. Sortzaile bakoitzak, gainera, bere osagarri originala eskaintzen du eta bere zeinu pertsonala, baina pertsonai horren izaera osatzen duten ezaugarri zehatz horien markotik sekula atera gabe.

Erakusketa honen helburua sei arketipo horien artean dauden ezberdintasunak erakustea eta nabarmentzea izan zen. Horretarako Hong Kong herriko Ming Ri Institutuko zuzendaria den Simon Wongen laguntza jaso zuen Topic zentroak, izan ere berak oso ondo ezagutzen du Tolosa eta bere txotxongilo jaialdia. Bera ezagupenak oso garrantzitsuak izan dira Topic zentroak gaur egun duen txotxongilo bilduma txinatar baliotsua bereganatzeko orduan, pixkanaka museoaren fondoa osatzen joan direnak.

7.3. “Panpina Bizidunak”, hirugarren erakusketa (10-6-28/10-9-23)

Erakusketa hau Muñecos Animados enpresak 30 urteko ibilbidean egindako lan nagusien atzera begirakoa da. Antzerki, zinema, telebista eta publizitaterako hainbat pertsonaia sortu ditu enpresak bere jarduna hasi zuenetik, eta zeregin horretan oinarritutako 65 piezako bilduma eta ikus-entzunezko sei muntaia jarri ziren ikusgai Tolosan.

Erakusketarako hautatutako lan gehienak garai berrienekoak dira, ikus-entzunezkoen sektorerako lanak nagusitu diren garaikoak alegia. “Gomaespuma” (Telecinco 1994) eta “Los Patata” (Telemadrid, Canal Sur, Canal Castilla la Mancha 2008) saioetarako pertsonaiak, “Mortadelo y Filemón” (2001) filmekoak edo “Los Lunnis” (TVE) panpinak zeuden horien artean, baita hain ezagunak ez diren baina plastika berritzaileagatik eta garapen teknikoagatik era berean interesgarri diren beste hainbat ere. Erakusketaren osagarri, bideoak proiektatuko dira, emanaldienak, eraikuntza prozesuenak eta animazio teknikenak.

Topic zentroaren erakusketa honek, 2010 urteko irailaren 23ra bitartean zabalik egon zena, azken garaiko lanak ditu ardatz, sormen lana bereziki ikus-entzunezkoen sektorerara bideratu den garaiko emaitzak. Manuel Román Muñecos Animados enpresaren arduradun eta panpinen sorkuntzan adituak (haren panpina asko telebistako eta zinemako pantailetan agertu dira) bereziki nabarmendu du esparru horretan Jim Hensonek (muppeten sortzaileak) egindako ekarpena:

Bide berri bat zabaldu zuen aurreko mendearen amaieran, eta harrezkero panpinak ezinbesteko komunikatzaile gisa ageri dira telebista kate askotan. Txotxongilolari zenbaitek haren ildoari jarraitu diogu eta panpinaren eta kameraren arteko erlazioan eta denbora errealeko animazioan sakondu dugu. Horixe da, hain zuzen, jendaurrean erakutsi nahi dugun sorkuntza prozesua: panpina, pieza bizigabe gisa, eta telebista pantailako erretaula berri horretan ematen zaion bizitza. Panpinak egiteko nahiz animatzeko erabiltzen diren teknikak hizkuntza horri lotuak dira eta horiek bereizten gaituzte sortzaile gisa.

Telebistako hainbat saio ahaztezinetako protagonistak ikus zitezkeen erakusketan. Panpinen edo txotxongiloen eta telebistaren arteko erlazioak, zeinak baititu bere arau bereziak. “Zergatik erakartzen gaitu panpina batek, pantailan agertzen denean?”, galdetzen dute Muñecos Animados etxeko kideek. Eta erantzun haxe ematen dute:

Uste okerra da panpina pantailan antzezle baten modura arituko dela pentsatzea, ezinezkoa baita. Haren keinu hizkuntza ez da errealista; espresionista, baizik. Panpinak antzezle ezin okerragoak dira. Ez dakite gauzei ongi heltzen, ez dakite oinez, ez esertzen, ez jaten, ez edaten. Ekintzak egin ditzaten, behin eta berriz entrenatu behar ditugu txotxongilolariok, mugimendu sinesgarri samarrak eta ulergarriak egin ditzaten lortzeko, edo, gutxienez, ikusleek guk nahi ez dugun horri errepara ez diezaioten lortzeko. Zertan datza, orduan, panpinen indarra? Panpinak kameraren aurrean duen boterearen oinarria ez dira haren ekintzak; haren erreakzioak, baizik. Begien bistan duen pertsonaia horrek inguruan gertatzen dena sentitzen eta horrekiko erreakzionatzen duen heinean bizitza edukitzeak ikusleari sortzen dion zirrara.

Eta hori guztia, telebistan, Romanen iritiz “oso krudela” den ingurune batean, [...] ikusleak ez baitu ezer ordaindu zu ikustearen truke eta ez baitu zurekin gelditzeko inolako beharrik. Aldagailu automatikoari sakatu eta beste norabait alde egiteko erabakian eragin gehien duten faktoreetako bat zalantza da, ikusten ari den hori ez ulertzea. Kontuan hartu beharra dago pantailan egiten dugun proposamena ezohikoa dela, ez dela ikus-entzuleak ikusten ohituta dauden hori. Ikuslearen aurrean agertzen zaren lehenengo segundoa funtsezkoak dira, oso denbora gutxi daukagu erakartzeko eta limurtzeko. Beraz, arreta gal ez dezan lortu behar dugu, gu ulertzeko ahalegin berezirik egitera behartu gabe; ez dio bere buruari galderarik egin behar, normaltasunez hartu behar gaitu.

Topic zentroaren aldi baterako erakusketa hau 2009 urteko azaroan zentroak ateak zabaldu zituenetik antolatutako hirugarrena da, eta Románek zuzendari artistiko gisa jardun duen taldeen ibilbidearen berri eman zurn: Román y Cía (1995-2002), Érase Producciones (2003-2005), Pets Entertainment (2006-2009) eta Muñecos Animados (2006-2009), zinemarako, antzerkirako eta telebistarako panpinen diseinuan, eraikuntzan eta animazioan espezializatutako enpresak, guztiak ere. “Erakusketa hau panpina animatuekiko zaletasuna kutsatu diedan horientzako omenaldi bat da”, azaldu zuen Manuel Románek. Bere karrean “Los Lunnis”, “Los Patata”, “7 Pets”, “Cuorelandia”, “El circo de TVE” eta “La cocina de Baldo” sortu ditu, besteak beste. Telebistako hainbat saiotan parte hartu du –“La aventura del saber”, “El concierto”...–, baita film askotan ere, hala nola, “El milagro de P. Tinto”, “Noviembre”, “Di que sí” eta “La gran aventura de Mortadelo y Filemón”, Javier Fesserrena, zeinarentzat egin baitzituen 25 panpina eta Mortadeloren jantzien diseinua.

Mariona Topic-eko maskota



7.4. Laugarren aldiriko erakusketa, Indonesiako txotxongilo tradizionalak (10-10-23/11-1-31)

Indonesiako txotxongiloak dira Topic zentroko aldiriko erakusketak protagonista berriak, 2010ko urriaren 23an inauguratu zena. Erakusketak “Indonesia, Wayang Golek” izenburua darama eta guztira 91 txotxongiloek osatzen dute, horietatik 90 hagatxokoak eta bat itzaletakoa. Guztiak Topic Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroko fondo propioetakoak dira. “Indonesia, Wayang Golek” da Topic zentroak antolatzen duen laugarren aldiriko erakusketak, duela urte bete inauguratu zenetik.

2010ko urtarrilaren 31a bitarte izango da ikusgai erakusketa. Bertan ikusleek erabateko presentzia duten panpinak aurkitzen dituzte, “izan ere manipulazio teknika eta estetika bera dute”, azaldu du Museografia arloko eta dokumentazio arduraduna den Maria San Sebastianek. “Hala ere –jarraitzen du–, berdintasun itxura horren atzean, guztiak ezberdinak dira orrazkera, janzkera eta azalaren pigmentazioan”.

Erakusketen ehun pieza daude eta bakoitzak “poema epiko-erlijiozko ezberdinetako pertsonaiak irudikatzen ditu, eta Indonesiako beste tradizio batzuk eta, horregatik, bere karakterizazioa bakarkakoa da eta inoiz ez ustekabekoa”. Forma eta koloreengatik euren presentzia txundigarria da, “euren apainketa eta fisikoko xehetasun bakoitzak du bere esanahia. Erakusketa honetara hurbiltzen direnek oso txotxongilo politak eta preziosistak aurkituko dituzte”, dio San Sebastianek.

Topic zentroko zuzendarietako bat den Idoya Oteguik erakusketa honen balioa nabarmendu du, izan ere “Unescok Giza Ondare Materiagabe eta Ahozkotzat hartzen du Wayang Golek txotxongilo mota”. Tolosako Txotxongilo Jaialdiak eta orain Topic zentroak mundu osoan zehar egin duen piezen bilaketa eta bereganatze lanak ahalbidetu du Tolosako zentroak oso bilduma osatua izatea. “Topic zentroaren lehenengo urteurrenean Indonesiako txotxongilo mota tradizional honi omenalditxo bat eskaini nahi izan diogu, nahiz eta Malasian ere badagoen”, dio Oteguik.

Wayang Bali, Java, Sunda eta Indonesia eta Malasiako javatar eragina duten eskualdeetako antzerki tradizionala da. Hasiera batean “itzala” esanahia zuela uste da eta, horregatik, erreferentzia egingo lioke itzeletako antzerkiari. Wayang Unescok 2008 urtean Giza Ondare Materiagabe eta Ahozkotzat hartu zuen, herrialde horretako nortasun ezaugarria bilakatuz, nahiz eta oraindik eskualdeetako bariatateak mantentzen diren. “Wayang Golek” txotxongiloak hagatxodunak dira, eta burua eta gorputza lotzen dituen erdiko ardatz batekin maneatzen dira, eta beso bakoitzean duen hagatxo bidez. Pertsonaiak aurpegia eta orrazkeraren arabera ezberdintzen dira. Jainkoak (dewa/batara), nobleak (satria), tximuak (wanara), erraldoiak (raksasa), edo deabruak (buta). Guztiek dituzte elementu amankomunak makillajea, orrazkeran eta janzkeran.

8. Egitarau aberatsa

Topic zentroak etengabeko mugimendua du 2009 urte amaieran ateak zabaldu zituenetik. Tolosako Euskal Herria plazako eraikinean tailer bereziak eskaini dira, askotariko ikuskizunek tartea izan dute, aurkezpenak edota hitzaldiak ere egitarau aberatsa osatu dute, eta bisitak ere jaso ditu txotxongiloen etxe tolosarrak.

8.1. Bisitak

Bisita mordoa jaso ditu Topic zentroak zabalik daraman denboran. Quebec hiriko agintariek Tolosa bisitatu zuten. 2009 urteko Titirijai jaialdiak 27. edizioa bete zuten eta urte horretan –urtero egin ohi den bezala hiri edota herrialde batekin– Quebecera leihoa ireki zuten, jaialdian bertako tradizioari arreta berezia jartzeko asmoz.

Honez gain, beste ehunka bisita ere jaso ditu Topic zentroak. Besteak beste, Chernobilko haurrek 2010ko udan izan dira, guztira 123 lagun, horietatik 47 haurrak. Bikarte elkartearen bitartez, umezurtegieta eta familia desegituratuetan bizi diren haurrek gurean uda pasatzen dute eta aurtengoan Topic zentrori bisita egitea pentsatu dute.

Bestalde, Bartzelona Futbol Taldeko mundu osoko jarraitzaileek Tolosan egin zuten 2009ko urriaren XXXIII. Topaketaren lehen afaria, Tolosan izan zen eta, besteak beste, Topic ere bisitatu zuten.

Nahiz eta zenbait bisitek komunikabideetan oihartzun handia izan duten, Topic zentroak milaka bisita anonimo jaso ditu, taldean zein bakarka, eta askok eta askok sinadura orrian betirako euren arrastoa utzi duten.

8.2. Ikuskizunak

250 ikuslerentzako auditorioan mugimendua nabarmena izan da azken urtean eta Tolosak bere kultur agenda ere osatu eta zabaldu du Topic zentroko eskaintzarekin. Hilean bi ekintza antolatzen iritsi da txotxongiloen etxea.

Théâtriques konpainia frantsesa izan da Topic zentroan “Toutouie ur azpiko abentura” obrarekin; Teatre de l’Homme Dibuxat talde balentziarrak “Harriz harriz” ikuskizun berezia eskaini zuten; eta Los Titiriteros de Binefar konpainia eza-gunak euskaraz eskaini zuten “La fabula de la raposa” obra ezaguna.

Aipagarria da Kolonbiako Teatro Comunidad konpainiako kideek Topic zentroko egoitzan egin zuten egonaldia obra prestatu ahal izateko eta, ondoren, Tolosan estreinatu zituzten “Tamborecos” eta “El fantoche” obrak. Zentzu honekin, egonaldia eta obraren estreinaldia batu dituen esperientzia bakarra ez da izan. Hain zuzen ere, 2009ko irailean txotxongiloak eta dantza uztartzen dituen kide indiar eta norvegiarrez osatutako konpainiak ere Topic zentroan egonaldia egin zuten obraren muntaia prestatzeko eta ondoren Tolosan estreinatu zen ‘Dre: Three’ (Zuhaitza) obra. Tolosako ikus-entzuleek gozatu ondoren, Oslon (Norvegia) taularatu zuten ikuskizuna.

Haurrentzako egitaraua bereziki zaintzen du Topic zentroak eta haiei zuzenduriko hainbat ikuskizun ere eskaini ditu txotxongiloen etxeak. Urrian Teatro Plus taldeak "La leyenda de farl" haurrentzako antzezlan eskaini zuen, esaterako.



Farres Brothers i Cia. Konpainia kataluniarrak arrakastaz aurkeztu zuen 'Ovni' lana. 2010

8.3. Tailerrak

Kasu gehienetan hurrei zuzenduriko tailerrak badira ere, Topic zentroak antolatu ditu helduentzako lan saioak ere. Esaterako, material zaharrak edota egunerokan erabiltzen ditugun objektuak erabili eta bizitza berri bat ematen ikasteko tailerrak edota paperezko txotxongiloak egiteko eskolak ere bai.

Hala ere, etxeko txikienak dira tailerren jaun eta jabe. Bereziki Gabon garaian eta haurrek eskolan jai egunak dituztenean antolatzen dira horrelako ekintzak. Udan ere bai. Hala, esaterako, Eguberrietan Olentzero pertsonaia eskuz egiteko tailerra antolatu zen; Gabonetako ipuin batean oinarritutako hagatxodun txotxongiloa egiten ikasteko aukera izan zuten; eta bereziki itzalak aztertzeko tailer bat ere eskaini zen. Gainera, “Lunnis” panpinen sortzaileak ere tailerra gidatu zuen Topic zentroan. Izan ere, arlo bakoitzean adituak diren pertsonak, mundu osokok, Tolosara ekartzea da Topic zentroak duen helburuetako bat.

9. Bestelako ekintzak

9.1. Eskolekin lanean

Tosako Topic zentroa magiaz beteriko etxea da, hezkuntza proiektu dibertigarri eta erakargarriez betea eta ikasleen garapena, jolas, metafora eta benetako sormen prozesuetatik jorratuz. Denentzat dago lekua etxe honetan, bai euren kabuz bisitan etorri nahi dutenentzat, baita bertako arduradunekin txotxongiloen mundu zoragarrian barrena sakonkiago bidaiatu nahi dutenentzat, eskola kanpainen barne aukera batetan parte hartuz. Topic zentroak martxan jarri duen eskola kanpainak bi aukera ezberdin eskaintzen ditu.

Alde batetik, egun bateko bisita dago (10 euro haur bakoitzeko). Topic etxea eta txotxongiloen altxorra gehiago ezagutu nahi duten Lehen Hezkuntzako ikasle orori eskainia dago, etorri baino lehen eta ondoren gelan lan dibertigarri bat eginez, eta tartean Topic zentroko arduradunekin egun zoragarri bat pasatuz. Txotxongiloen munduaz gozatu eta honen inguruko gauza gehiago ikasteko aukera paregabea da.

Ekintzak, hau hartzen du bere baitan: etorri baino lehenago, eskolan jolaslan erraz bat egitea; egun bateko bisita Topic zentrora (10:00etatik 15:00ak arte); ikuskizuna ikusi eta artistekin hizketaldia izan; txotxongilo eraikuntza tailer batean parte hartu; aldiroko erakusketa eta museora bisitatu eta, azkenik, behin eskolan, ekintza beste jolaslan erraz batekin itxiko da.

Beste alde batetik, hiruhileko batez Topic zentroarekin batera elkarlana egiteko aukera eskaintzen da, esperientzia luzatzeko aukerarekin (20 euro haur bakoitzeko). Aukera hau hiruhileko oso batez txotxongiloen mundu zoragarrian sakondu nahi duen Lehen Hezkuntzako ikasle ororentzat da, plastika eta ikus hezkuntza ikasgaiari jorratuko den ekintza luzeago bat planteatuz. Honetarako ikasleak bi aldiz etorriko dira Topic zentrora, txotxongilo eraikitzaile eta benetako manipulatzaileak bihurtuz: azken batean benetako titiritero bilakatuz.

Ondoko ekintzak hartzen ditu bere baitan: etorri baino lehen, eskolan jolaslan erraz bat egitea; lehen bisita Topic zentrora (10:00etatik 15:00etara); ikuskizuna ikusi eta artistekin hizketaldia; aldiroko erakusketa eta museora bisitatu; ondoren ikasgelan garatuko duten Txotxongilo eraikuntza tailer batean parte hartzea; behin eskolan, hiruhilabeteko erdiz plastika eta ikus hezkuntza ordutan lan-

duko da proiektua, bakoitza bere txotxongiloa eraikiz eta nahi duen izaera emanaz; bigarren bisita Topic zentrora (10:00etatik 15:00etara); ikuskizuna ikusi eta artistekin hizketaldia; manipulazio eta eskenaratze tailerra gelan eraikitako txotxongiloekin; behin eskolan, hiruhilabetekoaren bigarren zatian, plastika eta ikus hezkuntzako orduetan landuko dute proiektua, txotxongiloekin eskenaratze txikiak prestatuz.

Emozioak jarraituz gero, hurrengo hiruhilekoan eszenak lotzeko aukera dago, istorio bat kontatu, gertatzen den lekua irudikatu eta eraiki guztiak bizitza har dezan... hala ekintza honetan parte hartzen duten ikasleek eskolan antzetzeko txotxongilo ikuskizuna izango dute. Urte osoan lan eginez gero, emanaldia musikatu eta benetako antzoki batean antzetzeko bidea erraztuko da.

9.2. Mariona, historia duen maskota

Oraindik laburra bada ere, Marionak bere historia txikia du. Irudia aukeratzeko, Gipuzkoako ikastetxeen Lehen Hezkuntzako ikasleen parte hartzea sustatu zen eta Topic zentroko maskota irudikatzea eskatu zitzaion. 500 proposamen jaso zituen Tolosako Ekinbide Etxeak eta 3.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten egitasmoan. Azkenean, irabazle suertatu zen ideia Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako Urtzi Odrizolarena izan zen.

Proposamen hau Enkarni Genua titiriteroarentzat inspirazio iturri izan da eta Marina maskotari forma emateko erabili du. Gaur egun hiru dimentsiotan Topic zentroko museoa bisitatzen dutenei ongi-etorria ematen die Marionak.

9.3. Lan sarea handituz

Topic zentroak ateak parez pare zabalik izan nahi ditu, proiektua guztiona izan dadin. Horretarako, Topic zentroko lan-taldearekin lan egiteko boluntarioak gustura hartuko ditu. Bide honetan, denbora librean duten pertsonak nahi dituzte, 16 eta 100 urte bitartekoak. Hala dio web gunean zintzilikatu duten oharrak:

Zure aisialdia, zure gaitasunak eta ezagutzak Topic bezalako egitasmo erakargarri eta pizgarriak oso bailagarriak izan daitezke. Anima zaitetz eta gure egitasmoarekin elkartu zaitetz boluntario gisa, zior Topic zentroan aurkituko dugula ekintzaren bat zu gustura aurkituko zarena eta zure denbora tartera egokituko dena.

Horrela, interesa dutenek galdeketa erantzun eta zentrora bidali behar dute.